



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.alsasu.net  
alsasu@alsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

## **ALTSASUKO UDALAK MEMORIA HISTORIKOAREN ARLOAN IKERKETA LAN BAT EGITEKO BEKA EMATEKO PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

### **1.- Deialdiaren xedea.**

Altsasuko Udalak ikerketa-beka baterako deialdia egin du, Altsasuko eta/edo Sakanako Oroimen Historikoa ikertzeko, Altsasu BHIko Geografia eta Historia Sailak egindako Gogoan proiektuaren esparruan bildutako dokumentazioan oinarrituta egon beharko dena, nahiz eta modu eskusiboan izatea beharrezkoa ez izan. Oinarri hauek onartzean bi entitateen artean indarrean dagoen hitzarmenaren ondorioz Altsasuko Udalari lagatuko dokumentazioa hain zuzen.

### **2.- Eskatzaileak.**

2.1.- Batxilergoko titulua duten guztiek eska dezakete beka.

2.2.- Banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango da. Azken kasu horretan, ikerketa taldea osatzen duten pertsona guztiek aurreko puntuan ezarritako baldintza bete beharko dute, bekaren diru kantitatea finkoa dela kontuan hartuta.

2.3.- Ezin izango dute beka eskatu ez epaimahaikideek, ez Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kideek, ez eta 2. gradura arteko lerro zuzeneko ahaideek edo 3. gradura arteko alboko lerroko ahaideek ere.

### **3.- Bekaren diru kantitatea.**

3.1.- Bekaren diru kantitatea 700,00 eurokoa da, Udalaren 2020ko Aurrekontu Orokorrean sartuta dagoen 3340 22699.02 "Memoria Historikoko jarduerak" izeneko partidaren kontura. Bekaren zenbatekoak ez du zerikusirik izanen beka bakarka edo taldeka eskuratzeko aukerarekin.

3.2.- Indarrean dagoen araudi fiskala betez, bekaren diru kopuruari dagokion atxikipena aplikatuko zaio.



#### **4.- Bekaren baldintzak eta epeak.**

4.1.- Bekaren iraupena 5 hilabetekoa da, bekaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Epe hori bukatuta, bekadunak Altsasuko Udalaren egoitzan (Gartzia Ximenez kalea 36, 31800 Altsasu) eman beharko du ikerketaren azken lana, erabat amaituta.

4.2.- Ikerketaren azken lana idatziz eta euskarri informatikoan emango da, azken kasu horretan, edukia laburtzeko moduko formatu digitalean, beharrezkoa bada, argitaratzeko.

4.3.- Ikerketa-lanen proposamenak argitaratu gabeak izango dira.

4.4.- Diru-laguntza eman dela jakinarazi eta gehienez ere 2 hilabeteko epean, bekadunak ikerketa-lanen aurrerapen-memoria aurkeztu beharko du Altsasuko Udalean.

4.5.- Bekadunak bekaren diru-kopuruaren %50 jasoko du beka ematen zaionean.

4.6.- Ikerketaren azken lana entregatu ondoren, Altsasuko Udalak bekaren gainerako %50a emango du, baldin eta, Tokiko Gobernu Batzarraren iritziz, epaimahaiak proposamena egin ondoren, lanak nahikoa kalitate badu.

4.7.- Beka emateak eta onartzeak ez dakar inolako lan-harremanik bekadunaren eta Altsasuko Udalaren artean, ez eta merkataritza-, zibil- edo bestelako harreman juridikorik ere.

4.8.- Altsasuko Udalaren eta bekadunaren arteko ikerketa-lana, memoria partziala eta gainerako komunikazioak euskaraz eta/edo gaztelaniaz egingo dira.

4.9.- Beka eman ondoren bekari uko eginez gero, eta bekaren aurrekontuaren %50 ordaindu ondoren, Altsasuko Udalak ordura arte ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatuko du.

4.10.- Eskabidea aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea dakar.

#### **5.- Eskabideak eta agiriak aurkeztea.**

5.1.- Beka eskatzeko agiri hauek bidali beharko dira:

a) Erantsitako ereduaren araberako eskabidea, [www.alsasu.net](http://www.alsasu.net)-en deskargatu ahal izango dena, honako hauekin batera:

- Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Curriculum vitae laburtua, eskatzailearen batxilergoko tituluaren fotokopiarekin batera, edo, eskaera talde mailakoa bada, eskatzaileena.

b) Ikerketa proiektuaren azalpen memoria, gutxienez atal hauek bilduko dituen:

- Proiektuaren titulua
- Lanaren hipotesia eta lortzea aurreikusten diren emaitzak.
- Lana kudeatzeko plana.
- Aurkezten den ikerketa-proiekturako Altsasu BHI Gogoan proiektuaren dokumentazioa kontsultatzearen garrantzia azaltzen duten arrazoiak.
- Ikerketa-proposamena laburbiltzen duen testua (200-400 hitz).

5.2.- Dokumentazioa aurrez aurre edo posta bidez aurkez daiteke, helbide honetan:

Altsasuko Udala  
Gartzia Ximenez 36  
31800 Altsasu (Nafarroa)

Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira: [www.alsasu.net](http://www.alsasu.net)

5.3.- Aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, oinarri hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

5.4.- Eskabide bakarra onartuko da izangai bakoitzeko.

5.5.- Interesdunari eskatuko zaio, errekerimendua egin eta bi egun naturaleko epean, 4.1 atalean eskatutako dokumentazioa osatzeko, lehenago aurkeztu ez bada. Horrela egiten ez bada, eskabidea artxibatuko da.

5.6.- Bekaren esleipena ebatzi ondoren, beka jaso ez duen pertsonak edo hautagaiek hilabete izango dute aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzeko. Horretarako, 4.2. eta 4.3. ataletan zehaztutako bideetako batetik eskatu beharko dute.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.alsasu.net  
alsasu@alsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Epe hori iraganik, erreklamatu ez diren eskaeren agiri guztiak suntsituko dira.

## **6.- Hautaketa eta beka ematea.:**

6.1.- Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, epaimahai bat izendatuko da, kide hauek izango dituen:

- Altsasuko Udalaren ordezkari bat.
- Altsasu BHiko Geografia eta Historia Departamentuko ordezkari bat.
- Nafarroako Memoriaren Institutuaren ordezkari bat.

Idazkaria: Altsasu BHiko Geografia eta Historia Departamentuko ordezkaria.

6.2.- Epaimahaiak idatziz aurkeztuko dio Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari irabazi duen eskabidearen proposamena, balorazio-prozesua egin ondoren.

Epaimahaiaren balorazio bileren akta egin beharko da.

6.3.- Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak beka emateko erabakia hartuko du, epaimahaiak egindako proposamenaren arabera.

6.4.- Beka ezin izango da aurkeztu diren bi proiektu edo gehiagoren artean partekatu.

6.5.- Beka emateko erabakia idatziz jakinaraziko zaio bekadunari, lanak amaitzeko epea hasi ahal izateko, bai eta eskabideak onartu zaizkien gainerako izangaiei ere.

## **7.- Bekadunaren betebeharrak.**

7.1.- Deialdi honetako arauak betetzea.

7.2.- Beka eragin zuen ikerketa egitea.

7.3.- Beka eman denetik bi hilabeteko epean Altsasuko Udalari aurrerapen-memoria bat bidaltzea, ordura arte egindako jarduera deskribatuko duena.

7.4.- Ikerketaren azken lana ezarritako epean aurkeztea zehaztutako formatuen arabera.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

7.5.- Ikerketa-lana erreproduzitu, ustiatu, banatu, publikoki jakinarazi eta eraldatzeko eskubideak Altsasuko Udalarari lagatzea, oinarri arautzaile hauetako 7. kapituluan zehazten diren baldintzetan.

7.6.- Altsasuko Udalarari harremanetarako datuetan (helbidea, telefonoa, posta elektronikoa) gertatzen diren aldaketen berri ematea.

7.7.- Bekari uko eginez gero, ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli.

7.8.- Ikerketa-lana argitaratzeko aurkezpen-ekitaldian parte hartzeko konpromisoa hartzea, halakorik bada.

### 8.- Ikerketa-lana argitaratzea.

Altsasuko Udalak eskubidea du ikerketaren azken lana erreproduzitu, ustiatu, banatu, jendaurrean jakinarazi eta eraldatzeko, formatu inprimatuan edo digitalean argitaratu ahal izateko, jatorrizko hizkuntzan edo beste edozein hizkuntzatarara itzulita, osorik edo erauzita, eta nahi adina aldiz berrargitaratu ahal izateko, bai eta bere web orriaren bidez edukirako sarbidea errazteko ere.

### 9. Errekurtsoak.

Oinarri hauek onesten dituen administrazio egintzaren kontra, errekurtso hauek aurkezten ahalko dira, hautara:

-. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, deialdia onetsi duen organo eskudunari zuzendua, hilabeteko epean, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.

-. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko dagokion salari zuzendua, bi hilabeteko epean, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.

-. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Epaimahaiaren Erregistroan aurkeztu beharko da.

### 10.- Datuen babesa.

Altsasuko Udala da datu pertsonalak tratatzeko arduraduna. Datu horiek erabiliko dira botere publikoak erabiliz diru-laguntzen deialdiak kudeatzeko. Datuak lagatzen ahalko dira,



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

[www.alsasu.net](http://www.alsasu.net)

[alsasu@alsasu.net](mailto:alsasu@alsasu.net)

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

indarra duen legeria betez, eta udal webgunean eta dirulaguntzen atarian argitaratuko dira. Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea du, udal bulegoetara joanda.

Datuen tratamenduaren zerrenda eta informazio gehigarria [www.alsasua.net](http://www.alsasua.net)-eko Pribatutasun Politikan kontsulta ditzakezu.